



EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZAREN TXOSTENA, 2021-2024 EUSKARAREN AGENDA ESTRATEGIKOARI BURUZKOA

1. Aurrekariak

Jaurlaritzaren plangintza estrategikoa egiteko eta izapidetzeko prozeduran aurreikusitakoaren arabera ("Jaurlaritzaren XII. Legegintzaldirako Plan Estrategikoen zerrenda eta hura izapidetzeko prozedura" onartu zuen Gobernu Kontseiluaren 2020ko abenduaren 15eko Erabakiaren I. eranskinean ezarri zen prozedura hori), plan estrategikoa bat Gobernu Kontseilura bidali aurretik, sail sustatzaileak izapidetze-fasean dagoen plana Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzari helaraziko dio, plangintzaren esparruan esleitzen zaizkion funtzioetan eragina duen edozein alderdiri buruzko iritzia eman dezan.

2. Gogoetak

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak aurkeztutako 2021-2024 Euskararen Agenda Estrategikoen edukiei dagokienez (analisi ekonomikoarekin eta politikaren aurreikuspenarekin, plangintzarekin eta jarraipenarekin zerikusia duten Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren funtzioei zuzenean dagozkienak), garrantzitsutzat jotzen da hobekuntza-puntu hauetan eragitea:

- Planaren irismena mugatzeak eta ardatzetan (konpromisoetan) eta jardueretan hedatzeak Jaurlaritzaren ekintzaren ikuspegi integratua baino sailekoagoa ematen du. Bereziki, ez da hizkuntza-politikaren eta gainerako gobernu-arloen artean formulatu aurretik egin beharreko koordinazio-prozesu bat, funtsezko urratsa baita horrelako zeharkako politika bat planifikatzeko.

Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko, Jarraipen Batzorde bat eratuko da. Administrazio orokorreko eta instituzionaleko hainbat kidek osatuko dute, eta Agenda egin aurreko eztabaida-organo gisa ere erabil zitekeen.

Koordinazio-falta gauzatu beharreko ekintzen antolaketan islatzen da. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren erantzukizuna edo eskumena diren ekintzak Agendaren ardatz (konpromiso) estrategikoetan sartzen dira; gainerako ekintzak, berriz, sailen araberrako zerrenda baten parte dira, baina zerrenda hori ez da ekintza-planean sartzen.

- Helburu estrategikoen eta konpromisoen arteko bat-etortzeak ez dirudi egokiena. 4 helburu estrategikoa aurkeztu dira; eta helburu horiek lortzeko ardatz estrategikoak 3 dira, bat datozenak Gobernu Programan Hizkuntza Politikarekin lotuta dauden konpromisoekin. Hala, ardatz (konpromiso) berak bi helburu aldi berean lortzea lortu behar du.

- 1. konpromisoan. *Euskararen ezagutza handitzea eta, batez ere, euskararen erabileran eragitea esparru soziokultural, ekonomiko eta digitaletan eta sektore publikoan. Ekimen gisa sartzen da Legegintzaldi honetako Euskararen Agenda Estrategikoa onartzea eta garatzea. Ez du zentzurik jarduera-ardatz batean garatzen ari den planaren beraren bultzada sartzea.*
- Plan estrategiko orok adierazle-sistema bat izan behar du jarraipena eta ebaluazioa egiteko, strategiaren egokitasuna eta garatutako neurriak kontrastatu ahal izateko. Hala, Agendan ardatz bakoitzerako adierazle batzuk jasotzen dira, baina ez dira zehazten 2024ko helburu kuantitatiboak eta eskura dagoen azken datua; eta horrek zaildu egiten du gauzatutako politikaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.
- Azkenik, baliabide ekonomikoei dagokienez, eragindako aurrekontu-programei dagozkien aurreikuspenak aurkezten dira, baina ez da identifikatzen edo lotzen eremu operatibo bakoitza (kasu honetan, Gobernu Programan Hizkuntza Politikarekin lotutako konpromisoak) dagozkion aurrekontu-programa edo -partidekin; eta horrek zaildu egiten du diseinatutako neurrien eraginkortasunaren jarraipena eta ebaluazioa egitea eta, beraz, plangintza- eta aurrekontu-prozesuak hobetzea.